

2023/000002036 **DEKRETUA**

**DEKRETUA.** Hernani, 2023/07/10.

## **AURREKARIAK**

**Lehena.** Hernaniko alkate-lehendakariak proposamena egin du onesteko bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautuko duen ordenantza tramitatzeko.

## **AINTZAT HARTUTA**

39/2015 Legearen arabaera, lege edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat egin beharko da eskumena duen administrazioaren webgunearen bitartez, eta horren bidez jaso egingo da zer irizten dioten proiektuari etorkizuneko arauaren eraginpean dauden subjektuek eta ordezkapen handiena duten erakundeek honako puntu hauei begira:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onartzea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua honako hau dio: «2. Hauek dira, nolahi ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak: d) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea». Horren ondorioz, Ordenantzari hasierako onarpena emateko eskumena du Hernaniko Udaltzako, udaltzarkideen botoen gehiengo soilez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoaren arabera.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.4 artikulua, heritarrek administrazioetan parte hartzeko eskubidea arautzen duena, aplikatu beharra dago halako arauen bidez erregulatu behar denean gai bat: «Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utzi daitezke Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haien lotutako antolakundearen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi nabarmenak daudenean [...]».

Hori dela eta,

## **ERABAKI DUT:**

**Bakarra.** Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautuko duen Ordenantzaren aurreproiektua kontsulta publikoan onestea.

Kontsulta publikoaren epea hamar egun baliodunetara izanen da. Epe horretan, interesdunek beren iritzia eta ekarpenak aurkeztu ahal izango dituzte Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoa digitalki ([www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) helbide elektronikoa erabilita); bai eta aurrez aurre, Hernaniko Udaletxean bertaratuta (azken hau, 8:00etatik 14:00etara bitarteko ordutegian).

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra  
Alkatea

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa  
Idazkaria

Dekretu hau elektronikoki sinatuta dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiaztatu ditzakezu QR kodea edo egoitza elektronikokoaren bidez.

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUF69acaf2-9d52-47c5-b45c-cb782008e987**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopia osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>